

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****LAUDIOKO UDALA****Behin betiko onespena. 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik**

Laudioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 29an egindako ohiko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2026 espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik.

Espedientea jendaurrean jarri da, 2026ko uztailaren 10eko 78. zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez.

Kreditu gehigarriak emateagatik 2026rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko 5/2026 espedientearen hasierako onespena jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, espediente hori behin betiko onartu da.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoa betez, aurrekontu aldaketa hori argitaratzen da. Hona hemen, sailkapen ekonomikoaren kapituluaren laburpena:

2026ko AURREKONTUA**5/2026 KREDITU ALDAKETA**

Fakturen Kredituen Gehikuntza:

KAPITULUAK	AZALPENA	ZENBATEKOA
1	LANGILE GASTUAK	150,00 €
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	656.442,67 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	351,49 €
6	INBERTSIO ERREALAK	96.444,50 €
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		753.388,66 €

Finantzazioa:

KAPITULUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
8	FINANTZA AKTIBOAK	753.388,66 €
FINANTZIAZIOA GUZTIRA		753.388,66 €

Bestelako gastuen Kredituen Gehikuntza:

KAPITULUAK	AZALPENA	ZENBATEKOA
1	LANGILE GASTUAK	358,00 €
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	68.378,54 €
3	FINANTZA-GASTUAK	48,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	98.317,89 €
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		167.102,43 €

Finantzazioa:

KAPITULUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
8	FINANTZA AKTIBOAK	167.102,43 €
FINANTZIAZIOA GUZTIRA		167.102,43 €

Ebazpen hau behin betikoa da administrazio-bidean, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria-Gasteizen, txandaren arabera egokitzen den Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabeteko epea dago, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Laudio, 2026ko abuztuaren 3a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ